


# HOLLYWOOD-en BARRENA



Eskuen eta oinen aztarnak.

Los Angeles mugagabe honetara heltzean, aitor dut, eta lagundu ninduen Andolin Eguzkitza ere lekuko, Hollywood-era abiatu nintzen. Non ez?

Etorri aurretik, jakina, Hollywood famatu hori bertan edo urruti ote zegoenez ere ez nekien. «Han nonbait», esan nezakeen, irakurle askok esan lezakeen bezala.

Eta hor dago, gaur Antigua Donostian edo Santutxu Bilbon dauden bezala: hiri nagusiko auzo bihurturik. Lehenengo mendi kaxkoetako bati deritzo «Hollywood». Letra handitan ere irakur daiteke Los Angeles-ko kaleetatik, halako muno batetan. Eta «Griffith-Park» delakoaren gailurrean, hain zuzen, «Hollywood-Observatory» ezaguna dago, Donostian dugun Igel-do-koaren kide. (Nahiz handiagoa, jakina, planetario batez hornitua; baita herriak bere buruz erabil dezakeen teleskopiaz gain).

Nik, ordea, ez nuen Parkea bilatzen, ezta Observatorioa ere. Nik, beste edonork bezala, hainbestetan amets eragin dīgun zine-hiriburua bilatzen nuen; munduak ezagutu duen «amets-lantegirik handiena», maiz esan ohi denez.

Amets-mundu hori, ordea, suntsitu egin da Hollywood-en. Artistarik famatuenek Malibu-n dituzte gaur beren egoitzak (itsas-ertzean, beraz, Los Angeles-erdiatik 40 bat kilometrotara); edo-ta, hurbilenik bizi direnek, Beverly-Hills-en, Sunset Bulebarreko Mendebaldean eta Bel-Air-eko munoetan.

Eta Hollywood-en zer, beraz?

Gu guztiok lilurutzen gintuen mundu hartaz, ezer gutxi. Ilunduz gero, fama txarrik ere ez du eskas «Today, you'il find more pimpus and pros-

titutes than stars», irakur daiteke Frommers-en gidaliburu famatuan...

Eta Txinatar Antzokia («Chinese Teater») eta inguruko «Walk of Fame» delakoa (Hollywood-Bulebarraren parterik interesgarriena) han ez baleude, 30; eta 40, eta ondoko urteetako Hollywood hura, erabat itzalia dela pentsatzeko eskubidea genuke.

Badaude, ordea, Lurdes-en Amabirjina, edo Niagara-Falls-en bertako urjauziak bezala, Hollywood-i bere loria eman zioten artistak salgai bakartzat daukaten ehun dendak; baita Pasealekua eta Gauman-en Teatroa.

Hots, oso harrigarria da artista-mito horiek, **hemen ere**, nor diren ikustea. Orain dela hilabete batzu Donostian «Casablanca» eman zutenean, nahiz ikusle asko eta asko zeharo hunkiturik egon, hori aitortzea «gaizki» hartzen zela erreparratu nuen. Donostiar jendea, askotan, lotsatu egiten zen filma hunkigarria dela aitortzeko. Bada, mutilak! Hollywood-Bulebarreko dendetan (eta dendariak ez dira sendimenduaz elikatzen!), gehien agertzen den artista-bikotea, **gaur**, 1981an beraz, «Casablanca»ko Hunphrey Bogart eta Ingrid Bergman dira. Hauxe da egia!

Besterik nor? Halako estatistika apur bat egin ondoren, artista hauek aipatuko nituzke, eta ilara honetan: Charles Chaplin, Marilyn Monroe, Clark Gable, James Dean, eta Marx Brothers. Horra hor, fotoen salmenta seinale izan daitekeen neurrian, nor dagoen hemen mito, eta nor ez. Harrigarria da, honi buruz, «Casablanca» ren ondoren, fotoen maiztasunari begiratuta, «**Lo que el viento se llevó**» aurkitzea... Badago horretan guztian zer pentsaturik. Zer zuten filma horiek? Zer ikutzen zuten gudan? Zein bar-



Hollywood-eko Txinatar Antzokia.

ne-ametsi dagozkio, urteetan barrena horren zinki iltzaturik egoteko? Artista horiek, bestalde, ez dira gaurkoak... Zer gertatu zaio zineari? Ni naizen arloteak ez daki; baina agian bestek zerbait azal lezake. Telebistak ziznez ordaindu al du «amets-lantegi» hura?

Gu baino gazteago direnek, jakina, ez lukete hori guztia guk bezala sendituko. Gure gazte-denboretan, eta negu-arratsalde euritsuetan, «Miramar» edo «Bellas Artes»era joateak, du-darik gabe, besterik adierazten zuen. Ia-ia dena debekaturik zegoen urte hits haietan, telebistarik ere ez zegoen urte haietan, zinea zen zirrikitu bakarra; «Mundua» ezagutzeko eta «amets» egiteko genuen ateka bakarra. Badakit. Ez da gauza bera. Eta amets ez hornitutako Hollywood hura, geuk sortu genuen hein batean; eta gurekin suntzituko da:

Garai hartako tituluak eta artistak, dena dela, **hemen ere** gainditu ezinak bide dira. Horra hor harrigarriena.

Baina «The Walk of Fame» delakoan barrena, harlosetako izarretan idatzirik, aurkitzen diren izenak gogoraztea izan daiteke harrigarriago. Behin hola guztiz modan egondako jendea, erabat ahaztuta agertzen zaigu; eta jadanik arrastorik utzi gabe joan bide zirenek, astindu egiten gaituzte: Gloria Swanson, Stan Laurel, Nelson Eddy, André Kostellanetz, Franchot Tone, Ricardo Montalbán... Eta beste mila. Nor oroitzen gaur haietaz? Monasterio zaharrek baino gehiago pentsarazten du Hollywood-Bulebarrak...

Baina hunkigarriena, agian, beti bisitari isilez bete, «Chinese Theater»Ko aurrekaldea da. Urteetan barrena, harlosa bana eskaini zaie artistarik sonatuenei; eta hauek, nork bere txandan, esku-ahurren eta zapaten aztarnak utzi dituzte zimentuan betirako; beren eskuak hitz labur batzu eta sinadura erantsiz. Nola uka batzuek eragiten duten zirrara? Mickey Rooney (1938), Norma Shearer (1927), Richard Widmark (1949), Clark Gable (1937)... Eta, ia patioaren erdian, gaurko gazteek ezagutzen ez duten Shirley Temple neskak famatua (1935): «Love to you all» (= maitasuna zuei guztioi). Eta beste



Walk of Fame

Hollywood, Calif.

«Walk of Fame» (Entzutearen pasealekua)

mila. Eta ikusleak isilik gelditzen dira, luzaz, lurrrera begira; nor bere amets-eragilearen bilaketa izkutuan... Greta Garbo ez dut aipatu; baina handienen artean jarri behar dela esango nuke.

Gehienak hilak: Clark Gable, Charles Chaplin, Marilyn Monroe, Robert Taylor, eta beste mila.

Denak ez. Egun ahetantxe agertu dira, esate baterako, Los Angeles-ko prentsan, Esther Williams eta Gregory Peck... Berak dira, izan, bai; baina... ez dira berak! Urten joana ez baita menturaz beste inon mingarriago, California oparo eta Hollywood ditzirante honetan baino.

Zinea ez da amaitu, eta zineari dagokion mitoiturria ez da agortu. «Endlen love» (amairik gabeko maitasuna), eta honen bi pertsonaia nagusiak (Dina Ross eta Lionel Richie) hor daude, pareta guztietan iragarriak. Biharko mitogintza ez da gelditu, noski.

Baina petrolioaren mendea berriz gertatuko ez den bezala, Lacq bukatu zen bezala, Hollywood dirdaitu hura ere betirako joan dela dirudi.

Eta hau, amets-iturri hartan uste baino gehiago edan genuenontzat, mingarri gertatzen da.

TXILLARDEGI